

Atzemandako hies kasu berrien kopurua erdira jaitsi da azken bost urteotan

Hala erakusten du gaitzaren bilakaerari buruz EAEn egindako 1998ko memoriak

Europa Press / Gasteiz

Orain bost urtekoekin alderatuta, gaur egun hies kasuen erdiak atzemandaren dira. Euskal Autonomi Erkidegoan, zehazki, portzentaia horrek %55,6 egin du behera, Jaurkitzako Osasun Sailak Hiesaren Aurkako Planaren barruan 1998urteko jardunari buruz egin duen memorian biltzen denez.

HIES kasu berriak erdira baino gehiagora murriztu dira EAEn azken bost urteotan. Espainian %49,3koa izan da beherakada, eta EAEn, berriz, sei puntu pasa gainetik jeitsi da portzentaia hori.

1998 urtean zerbitzu medikuek GIB birusa hartua zuten 236 kasu berri atzeman zituzten, aurreko urtean ikusi zituztenak baino laurden bat gutxiago hain zuzen. Iazko datu horrek berretsi egiten du 1994 urtean hasi zen beherako joera.

Estatu mailako datuak kontutan hartuta, gaur egun EAE zerrendako hirugarren postuan dago gaitzak duen eraginari dagokionez. Aurre-



JOSEBA OLALDE

Hiesaren Aurkako Nazioarteko Egunean Gasteizen egindako ekitaldi bat.

tik ditu Madrilgo komunitatea eta Balear Irlak.

Harreman heterosexualeen bidezko kutsaketak gora

Iazko memorian bildutako datuek erakusten dute oraindik droga kontsumitzaile-

leen arteko xiringa trukaketek sortzen dituztela kutsaketa kasu gehienak -%59,3 zehazki-.

Bada ordea beste datu azpimarragarriak. Babesik gabeko harreman heterosexualen kutsatutako lagunen kopuruak gora egiten jarraitzen du. 1997 urtean

atzemandako kasu berrien %15,4 kutsatu ziren modu horretan eta iaz, berriz, kasik laurdenak.

Era berean, gizonezko homosexual eta bisexualen artean ere igo egin zen joan den urtean babesik gabeko sexu harremanek eragindako kutsaketa kasuak.

Gaur hasiko dira Bermeon GIBdunen eta hiesdunen topaketak

Erredakzioa / Donostia

GOIZEKO hamaiketan partehartzaileei egingo zaien ongi-etorriak zabalduko ditu gaur Bermeon GIB/hiesa dutenen estatu mailako topaketak. Biltzar hau Bermeon egin zuten lehen aldiz orain zazpi urte gaitza hartu zutenen duintasuna aldarrikatzeko aldera indarrak batu nahi izan zituztelako. Zazpi urteko ibilbide honetan helburu hori lortu dutela pentsatzen dute eta aurrera begirako lanari buruz eztabaidatzeko berriz ere Bermeon biltzea erabaki dute.

Gaurtik hasi eta igandera bitartean estatu osoetik etorritako 800 lagun baino gehiago bilduko dira topaketetara. 35 lantaldetan banatuko dira, eta besteak beste, autolaguntza, sexualitatea, elkarrekin estrategiak, botika berrien eragina eta kartzeletako egoeraz jardungo dute.

Topaketak iraungo duten hiru egunotan Txo hiesako antolatzaileek eskatu diete herritarrei balkoietan izara zuriak zintzilikatu ditzaten, eta lazo gorria jar dezaten haren erdian.

Arakil-Uharteko tren istripuaren epaiketa hasteko erabaki du instrukzioeko epaileak

■ *Bi makinistentzat lau urteko kartzela eskatuko du fiskalak, kalte-ordainez gain*

Efe / Iruñea

ARAKIL-UHARTEKO tren istripua ikertu duen epaile instruktoreak ahozko epaiketari hasiera emateko erabaki berri du, bere ustetan instrukzio epea «agortua» dagoelako jada. Instrukzioaren arabera, Soledad Alejandre epaileak ondorioztatzen du Jose Manuel Garcia treneko makinistak eta Miguel Angel Marinetto laguntzaileak ardura zuzena izan zutela 18 pertsona hil eta ehun bat zauritu eragin zuen istripu hartan.

Nafarroako Instrukzioeko Lehenengo Epaitegiaren epaileak ez ditu ontzat hartu, beraz, SEMAF makinisten sindikatuak eginiko helegiteak, haiek eskatu baitzuten diligentsia gehiago egin zite-

zen 1997 urteko martxoaren 31 hartako tren istripuaren arrazoiak guztiz argitu ahal izateko.

18 ustezko gizahilketa delitu egosten dizkiete

Hauek dira epaileak bi makinistei leporatzen dizkienak: zuhurtzigabetasun larriaren gaitik, 18 ustezko gizahilketa delitu; aborto delitu bat; lesioengatik 69 delitu; eta lesioengatik sei falta.

Epaileak dio, bere idazkian, auzi honetan parte hartu duten akusazio guztiek —18 akusazio partikular eta Ministerio Publikoa— aurkeztu dituztela jada akusazio idazkiak, eta horregatik ulertu behar dela denek agortutzat jo dutela instrukzioa.

Nolanahi ere, SEMAF sindikatuak aurkeztutako helegiteari buruz iritzia eman behar du oraindik Nafarroako Probintzi Entzutegiaren hirugarren sailak. Erabakitzen badu sindikatuak eskatutako frogak egin behar direla, gaia instrukziozko epaitegira itzuliko litzateke berriro.

Ahozko epaia Iruñeko Gai Penaletako lehen epaitegian egingo da, baina oraindik egun zehatzik ezin eman daiteke.

Fiskalak lau urteko kartzela zigorra eskatzen du akusatu bakoitzarendako, eta 448.351.570 pezetako kalte-ordainak (18 milioi libera inguru). Parte guztiek hilabetezko epea dute orain auto horri errekurtsio edo helegiteak aurkezteko.